



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ENERGIA ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK

Energiaren Euskal Erakundeak (EVE) energiarekin zerikusia duten arlo ezberdinei buruzko diru-laguntzen **2015eko deialdia** argitaratu du. Herritarrek eska ditzaketen diru-laguntzak honakoak izan daitezke:

- Instalazio elektrikoaren Renove Plana: irekita dago eskaerak egiteko epea, uztailearen 31a arte. Berrituko den instalazio elektrikoak 25 urte edo gehiago izan behar ditu.
- Etxetresna elektrikoak berritzea: uztailean irekiko da deialdia eta etxetresna elektrikoak saltzen dituen establezimenduek egiten dute eskaera (etxetresna erosi nahi den dendan galde daiteke EVeren diru-laguntzekin bat egin ote duten eta horrela, diru-laguntzaren abantailak aprobetxatu).
- Leihoen Renove Plana: irailean irekiko da deialdia. 2015eko urtarrilaren 1a eta azaroaren 28a bitartean ordezkaturako leihoen gastuak izango dira diruz lagungarriak.
- Galdaren bitartez biomasa erabiltzeko instalazioetan inbertsioak egitea: irekita dago eskaerak egiteko epea, irailaren 30era arte.
- Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak hirugarren alorrean: irekita dago eskaerak egiteko epea, urriaren 15era bitartean.
- Garraioa eta mugikortasun efizientea: irekita dago eskaerak egiteko epea, urriaren 31era arte.
- Elektrizitatea ekoizteko energia berriztagarrien instalazioak: irekita dago eskaerak egiteko epea, irailaren 30era arte.

Informazio gehiago nahi izanez gero (bete beharreko baldintzak, etab.), udaletxera deitu eta ingurumen teknikariarekin hitzordua eska dezakezu (943-692-571), edo www.eve.es web guneko "Laguntza programak 2015" programan sar zaitezke.

UDALBATZA ERATZEKO PLENOA – EKAINAK 13

Maiatzaren 24ko hauteskundeak pasata, larunbat honetan, ekainak 13, Udal berria eratzeko plenoa izango da. Bertan, zinegotzi berriek kargua hartuko dute eta alkatea aukeratuko da. Beti bezala, herritarrak gonbidatuta zaudete.

DATA: EKAINAK 13

ORDUA: 12:00

TOKIA: PLENO ARETOA

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALETXEAN MUGI TXARTELA ESKATU ETA KARGATZEA

Jakingo duzuen moduan, lehengo abenduaren 22tik aurrera eskualdeko bus zerbitzu berriak martxan jarri ziren eta orduz geroztik, Adunako herritarrek eskaripeko zerbitzuak erabiltzeko aukera dugu. Zerbitzuak erabiltzeko orduan beharrezkoa da Mugi edo Lurraldebus txartelaren jabe izatea.

Adunako herritarrek, udaletxean txartela eskatzeko, edo jada txartela izanez gero, diruz kargatzeko aukera duzuela gogorarazten dizuegu. Txartelaren karga egiteko, ezin da eskudirua erabili eta beharrezkoa da kreditu txartela udaletxera ekartzea.

Tolosaldeko bus zerbitzuei buruzko informazioa Adunako udaletxean edo www.lurraldebus.eus web guneko "Lineak eta ordutegiak" izeneko atalean kontsulta dezakezu.

OILASKO BILTZEA

Oilasko biltzearen inguruan eginiko bileran, Herriko festa batzordeak eta gerturatutako herritarrek, ondorengo hiru erabaki hartu zituzten:

- Abuztuaren 14a izango da eguna.
- 15 urte aurrean betetzen dituztenek ere atera ahal izango dute, euren gurasoen baimenpean.
- Parte-hartzaile kopurua jakin nahi da, beraz, animatzen zaretenok, beste bilera bat egingo dugu **Ekainaren 17an Kultur etxean arratseko 8tan.**

ANTOLATZAILEAK

KZ GUNeko TUTORETZAK

Hurrengo KZ Guneko tutoretzak data hauetan izango dira:

Ekainak 16 eta 30 – 9:00tik 13:00ra

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net